

2018/04/27

“Beauty and the dogs” filmak irabazi du, Kauther Ben Hania tunisiar zuzendariarenak, Giza Eskubideen Donostiako Zinemaldiaren 16. Jaialdia

Donostia.- Donostiako Giza Eskubideen 16. Jaialdian, Amnesty Internationalen film luzeen saria eman dio epaimahaikoak “Beauty and the dogs” filmari (“Aala Kaf Ifrit”, 2017); Kauther Ben Hania tunisiarra izan da zuzendaria. Koprodukzioan aritu dira Tunisia, Frantzia, Suedia, Norvegia, Libano, Qatar eta Suitza, eta hauxe nabarmendu dute filmetik: “Zehaztasunez landua dago bortxaketa bat salatu nahi duen emakumeak nola sufritzen duen jazarpena eta nola egozten dioten errua berari”.

Egiazko gertakizun batean oinarrituta dago, eta xehetasunez ageri da Mariam protagonistak jasaten duen urraketa fisiko eta moral baten tirabira larria. Film luze horretan, bortxatua izan ondorengo gau luzea nola doan ageri da, hura salatzen saiatzen denean. Onarpen falta dagoela ikusten da, eta errua nola egozten dioten jendearengana joaten denean, bai eta Poliziak egiten dizkion mehatxuak eta gutxiespenak ere kasua salatu ez dezan.

“Beauty an the dogs” filmean (Ederra eta txakurrak) erakundeen zurruntasuna agertzen da, udaberri tunisiarretik hona ez baita aldatu; hala berean, segurtasun indarren zigorgabetasuna eta korporatibismoa ikusten dira, eta biktima defendatzen saiatzen direnek hartzen dituzten arriskuak. Emakumeen aldarrikapenak geraldian diren honetan, film honek gogoetarako beste elementu bat dakar, emakumeen eskubideen defentsan. Jaialdia ostiralean hasi zen, eta gaur arratsaldean amaituko da, ospakizun batekin, 20:00etan, Viktoria Eugenia antzokian. Ospakizun horretan, banatuko dute Amnesty Internationalen saria, “Etorriak” izeneko eskultura bat, Koldobika Jauregi artista euskaldunarena. Oraingo honetan, hor izango dira, saria banatzeko, Rocio Lardinois — epaimahaian egon da bera, eta Amnesty Internationaleko kidea da Europako errefuxiatuen eta funtsezko askatasunen arloan— eta Izaskun Fernandez —Amnesty Internationalen Donostiako taldeko kidea—.

Jaialdi osoan, Amnesty Internationaleko aktibistek sinadura ugari jaso dituzte Viktoria Eugeniara joan direnen artean honako kanpaina hauei atxikitzen direla adierazteko: “Errusia: Justizia, Natalia Estermirovarentzat, hil duten aktibistarentzat”, “Taner eta Istanbulgo hamarrak. Giza Eskubideen defendatzaileak Turkian” eta “Kolonbia, Giza Eskubideen defendatzaileak arriskuan”; beste kasu indibidual batzuetarako ere bildu dira sinadurak, honako herrialde hauetarako: Siria, Egipto, Bahrein, Iran, Hegoafrika eta Turkia.

/// AMAIERA

Amnesty International Euskadi - Prentsa-arduraduna

Juan Carlos Giménez

medios.euskadi@es.amnesty.org

Telf., 94 694 59 85 Móvil 602 216 346

Dokumentuak eta prentsa oharrak

www.es.amnesty.org

Giza eskubideen alde mundu osoan. Bakearen Nobel Saria 1977an. Herri-onurakoa deklaraturia (1981eko uztailaren 31ko Ministro Kontseiluaren Akordio bidez)

KOMUNIKATU

**AMNESTY
INTERNATIONAL** 

AMNESTY INTERNATIONAL
Euskadi

Bertako taldeak:

Ibáñez de Bilbao, 2, 2º A
48001 BILBO
E: bilbao@es.amnesty.org

Callejón de San Bartolomé, 5
20009 DONOSTIA
Tel.: 943 46 30 91
gipuzkoa@es.amnesty.org

Nueva dentro, 20, bajo
01001 GASTEIZ
Tel.: 945 25 94 38
vitoria-gasteiz@es.amnesty.org